

Baldid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

## Jakin nahi, konta nahi

**U**ztailaren 31ko *Berria* egunkarian Andu Lertxundik honako pasartea ekarri zigun, Senekak Luziliori idatzitako gutunak berrirakurtzen ari zela aurkitutako azpimarra batetik berreskuratuta: “Dena komunikatu nahi dizut. Horixe dut, hain zuzen ere, gogoko: zerbait ikasi orduko, nik bildutako oparia zuri eskaini ahal izatea. Doktrina batek, litekeen goratsuen eta osasungarriena izanda ere, ez ninduke sekula beteko, baldin nik bakarririk ezagutuko banu. Jakituria baldintza batekin eskainiko balitzait, dakidantxo ez zabaltzeko eta ezkutuan gordetzeko baldintzarekin alegia, uko egingo nioke delako jakituria horri: konpainiarik gabe, ondasun baten jabetza ez da sekula atsegina”.

Idea horrekin oso lotua ikusten dut nire oso gustuko den esaera zahar bat, idatzi honen izenburuan ageri dena: *Jakin nahi, konta nahi*. Rosa Sestorainek bildu zuen Leitzan, eta 1990eko Plazaola aldizkarian argitaratu. Ondoren, Mikel Olanok jaso zuen Leitzako hizkeraren inguruan osatutako liburuan.

Gustukoa dudala esan dut, iruditzen baitzait egia handia dela. Esaera zaharra ezagutu baino lehen, makina bat aldiz galdetu izan diot neure buruari zerk bultzatzen gaituen honako hau edo harako hura ikastera edo jakitera. Badira, jakina, eguneroko gure bizimodu aurrera aterako badugu ezinbestean jakin



KARLOS CORBELLA

eta ikasi beharko ditugun kontuak. Baina badira, izan ere, nekez atarramentu praktikorik emanen diguten jakintza eta ikasketa ugari, eskuratzek berak izerdia edo nekea besterik ekarriko ez digutenak askotan. Eta horiek ere jakin nahi izaten ditugu sarritan, hala ere.

Gizakiaren betiereko kuriositate eta jakin-min sonatu hori ote da? Zer da jakitearen jakiteaz gizentzen dena? Gure nortasuna? Gure adimena? Gure egoa? Jakin nahi hori bere horretan, huts-hutsean, ulertu al daiteke?

Bada, uste dut esaera zaharraren bigarren zati horrek erantzunaren zati bat bederen ematen digula. Jakin nahi izaten dugu, ondoren kontatu ahal izateko. Ez da egoera bakarra, dudarik ez dena, askotan kontatu gabeko sekretuaren edo jakintzaren jabe izateak eta ez konpartitzeak ere emanen digulako akaso nolabaiteko poza edo botere sentsazioa. Baina sinetsita nago askotan jakin-minaren eta jakin nahiaren sortzailea, gehienbat, kontatu ahal izate hori dela. Informazioak edo jakintza hutsak, maiz, erre egiten digu. Hurkoari kontatzerakoan ematen diogu zentzua hau edo hura ikasteko eta jakiteko ahaleginari, baita kontatu behar ez geniokeela dakigunean ere agian

Eta orain, horiek esanda, neure buruari egiten diodan galdera: zertarako ari naiz ni hau dena kontatzen? ■

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Borondatetsua zen Benito hirurogeigarren hamarkadaren hondarrean, sortu berria zen Usurbilgo eskubaloi taldean aritzen zelarik. Nago, Usurbilek izan zuen eragile garrantzitsuen bera izan zela. Prestatzailer izatea zuen helburu, eta gazte ekin zion bideari, bertako taxistek zuten bezero ohikoenetakoa. Garaiko puntako taldeen entrenamenduetan ikus zitekeen adi begirale, sistemen zurrupatzaile. Egia eta Bianchi bereziki lekuko. Kirola mundu, eskubaloia pasio, Lasarteko ATC fabrika hornizio. Ez gintuen mundu berak bizitzen. Nazional eta erregional eremuak genituen su, garai hartako federazioko frankistak

## Jokalari

sugai. Ez zuen bere ustez politikarik hobesten, zegoen egituraketari, falangista espainolen (militar faxistak barne) habiei aurre egitea soilik zen politika. Eta xanestebango militanteak ez zuen arazorik haiekin bat egiteko. Gazteak entrenatzen eman du bere onena eta ez dira gutxi bere pasioari zor eskubaloian ikasi dutenak. Galduta genuen gure arteko harremana, biziak bide oso ezberdinetatik eramane gintuen. Duela hogeitatu urte ikusi genuen elkar, nola ez, eskubaloi partida batean. Ez genuen gure arteko sua piztu, jendetasunak hala aginduta. Arrakasta zuen berak ikur, nik ohorea. Eta horiek bi dira. Zerk eragin dio inori Benito Mujika akabatzeke? ■